

HIZKUNTZA ESKUBIDEEI BURUZKO GIRONAKO MANIFESTUA

PEN International-ek munduko idazleak batzen ditu. Duela hamabost urte, PEN International-en Itzulpen and Hizkuntza Eskubideen Batzordeak Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin zuen publiko lehen aldiz Bartzelonan. Gaur, batzorde horrek berak, Gironan batzartuta, Adierazpen Unibertsalaren oinarrizko hamar printzipioak aldarrikatzen ditu:

1. Hizkuntza aniztasuna balioetsi eta babestu beharreko munduko ondarea da.
2. Hizkuntza eta kultura guztiekiko begirunea oinarrizkoa da munduan eztabaida eta bakea eraikitzeko eta mantentzeko prozesuan.
3. Pertsona guztiek ikasten dute hitz egiten bizitza, hizkuntza, kultura eta nortasuna ematen dien komunitate baten bihotzean.
4. Hizkuntza ugariak eta hitz egiteko era ugariak ez dira komunikaziorako bide soilak; pertsonak hazi eta kulturak eraikitzen diren ingurunea ere badira.
5. Hizkuntza komunitate bakoitzak dauka bere lurraldean hizkuntza hori hizkuntza ofizial bezala erabiltzeko eskubidea.
6. Lurraldeko hizkuntza komunitateak mintzatutako hizkuntzaren prestigioari lagundu behar dio eskola-hezkuntzak.
7. Desiragarria da herritarrek hainbat hizkuntzen ezagutza orokorra izatea, horrek enpatia eta irekiera intelektualari laguntzen baitio, eta norbere hizkuntza hobeto ezagutu dadin laguntzen du.
8. Testuen itzulpena, kultura ezberdinetako lan handiak bereziki, oso elementu garrantzitsua da pertsonen arteko elkar ulertzea eta begirune handiagoa izateko beharrezko prozesuan.
9. Hedabideak bozgorailu pribilegiatuak dira hizkuntza aniztasuneko lanak egiteko eta horren prestigioa eraginkortasunez eta zorroztasunez hazi dadin.
10. Norberaren hizkuntza erabili eta babesteko eskubidea ezinbestekoz onartu behar dute Nazio Batuek, oinarrizko giza eskubide gisa onartu ere.